

Zein KOLORETAKOA da MUSU bat?

Rocio Bonilla

Patxi Zubizarreta
itzultzaile



algar



Monika dut izena,
baina jende guztiak **MINIMONI** esaten dit.
Bizikleta gainean, haizeak hegan narama!
Enarak gustatzen zaizkit, marrubi kremazko **pasteltxoak**
eta **amak** kontatutako ipuinak.
Nirea da etxeko landareen ardura, haiek ureztatzea atsegin dut,
eta **kontutxoak** esatea,
azkarrago hazi daitezen.



Baina munduko gauza guztien artean, gehien, gehien
gustatzen zaidana... **MARGOTZEA** da!!!



Nire koloreekin, **hamaiika** gauza margotzen dut. Badakit marigorringo **GORRIAK**
koloreztatzen, eta zero **URDINAK** eta platano **HORIAK**. Baita **koheteak**,
pinguinoak eta **gorilak** ere, baina... sekula ez dut **MUSURIK** margotu.



GORRIZ margotu dezaket,
nire espagetien SALTSA bezala...



Ez, ezta pentsatu ere!
GORRIA omen da
haserredren **KOLOREA,**



eta **HASERRETZEAN...**

...ez duzu bat ere
musurik ematen!